

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### BASTIDAKO UDALA

#### Jendaurrean jartzea zabor bilketaren tasaren 2022ko bigarren sei-hilekoko errolda

Behin-behineko onespena eman ondoren zabor bilketaren tasaren 2022ko bigarren sei-hilekoko erroldari, jendaurrean jarriko da 15 egun baliouduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Iragarki honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorrek 98.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Borondatez ordaintzeko hilabeteko epea izango da; hain zuen ere, 2022ko urriaren 1etik urriaren 31ra, biak barne. Helbideratutako ordainagiriak 2022ko urriaren 30ean kobratuko dira.

Tasa horiek ordaindu behar izan eta ordainketa horiek inongo banketxetan helbideratuta ez dituztenek Kutxabanken edozein bulegotan ordaindu ahal izango dituzte beren zerga zorrak. Horretarako, beharrezkoa izango da etxean jasoko duten ordainagiri abisua aurkeztea. Abisurik jaso ezean, udal bulegoetan eskatu beharko dute.

Borondatez ordaintzeko aldia igarotakoan, premiamenduko betearazte bideari ekingo zaio, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Zergei buruzko Foru Araudian ezarritako xedapeneekin bat etorritik, eta legez ezarritako erreklarguak kobratuko dira, eta, hala badagokio, baita berandutze interesak eta sortzen diren kostuak ere.

Bastida, 2022ko irailaren 26a

*Alkatea*

**LAURA PÉREZ BORINAGA**